BERRIDATZI HURRENGO ESALDIAK, -LAKO KENDUTA ETA BAIT- / ETA JARRITA.

1. Gaur ez naiz eskolara joango, gaixorik nagoelako.

2. Uste dut Ander berandu iritsiko dela, autobusa galdu duelako.

3. Ama pozik zegoen, azterketa guztiak gainditu genituelako.

4. Ez dut uste gaur euririk egingo duenik, eguraldi ona dagoelako.

5. Irakasleak esan digu azterketa ostiralean egingo dugula, denbora gehiago behar dugulako.

6. Iaz zuek ez zenuten partidarik galdu, oso ondo jokatu zenutelako.

7. Gurasoek poz handia hartu dute, etxera garaiz iritsi garelako.

8. Badakit Maialenek ez duela gezurrik esaten, beti egia esaten duelako.

9. Ez gara hondartzara joan, eguraldi txarra egin duelako.

10. Lagunek ez didate deitu, nire telefonoa galdu zaidalako.

11. Uste dut zuzendari ona nintzela, kritika onak nituelako.

LIVEWORKSHEETS

12. Ez dugu bidaia bertan behera utziko, dagoeneko dena prest daukagulako.

13. Pozik nago, gaur gradua amaitu dugulako eta lizentziatu garelako.

14. Ez dira bilerara etorri, beste konpromiso bat zutelako.

15. Ziur nago azterketa gainditukо duzula, asko ikasi duzulako.

LIVEWORKSHEETS